

Ezpalak

JON TORNER

Miren Iza hondarribiarra buru duen Tulsa taldea Grammy Latinoak saria irabazteko hautagaia da, Artista Berrien atalean, *Sólo me has rozado* bere estreinako diskoari esker. Azaroaren 8an banatuko dituzte Grammy sariak Las Vegasen (AEB). Tulsa taldea MTV sarietarako ere hautatu dute, Europako Soinu Berriak atalean. Sari horien irabazleak azaroaren 1ean Munichen (Alemania) egingo den galan ezagutaraziko dituzte.

Eduardo Chillida eskultoreak, Luis Peña Gantxegi arkitektoak eta Jose Maria Elosegi ingeniariak 1977an amaitu zituzten Donostiako *Haizearen Orrazia* obra eta haren ingurunea, baina ez ziren sekula ofizialki inauguratu. Hogeita hamar urte geroago, irailaren 16an, egingo da inaugurazio-omenaldi ekitaldia.



Alberto Iglesias musikagile donostiarrak Espainiako Kultura Ministerioaren Zinema Saria jasoko du, bere ibilbide osoan egindako lanagatik. Alberto Iglesiasek Julio Medem eta Pedro Almodovarren film askotako musikak egin ditu, eta Montxo Armendariz eta Imanol Uriberekin ere aritu da lanean. Saria hilaren 22an jasoko du Donostiako Zinemaldian egingo den ekitaldian.

Juan Armentia argazkilari bilbotarrak *Artea* izeneko erakusketa paratu du Iruñeko Contraluz galerian. Zezenketaren inguruko formatu txikiko irudiak bildu ditu Euskal Herriko Argazkilari Taldeen Elkarteko presidenteak. Erakusketa hilaren 30 arte izango da ikusgai.



Ortzai Antzerki Laborategiak Gasteizko alde zaharrean izango du egoitza berria, Arkeologia museoaren alboan. Ortzai 2005eko urrian sortu zen, Iker Ortiz de Zarateren zuzendaritzapean. Egun, hogeiki ikaslek jasotzen dituzte bertan antzerki eskolak.

Irailaren 14an abiatuko da Musikale nazioarteko jaialdia

Musikalek, Kaleko Musikari Nazioarteko Topaketak, Basauri, Erandio, Leioa eta Sestao bisitatu dituzte aurten. Hilaren 14tik 16ra bitartean 200 musikari baino gehiagok zeharkatuko dituzte hiri horietako kaleak. Euskal Herriko, Alemaniako, Italiako, Portugalgo, Indonesiako eta Burkina Fasoko musikariek parte hartuko dute, besteak beste, jaialdiaren zazpigarren edizioan. Euskal Herriko ordezkariak Mac Jeara's Band (goiko irudian) eta Trikileku dira. Goizeko emanaldiak 12:30ean hasiko dira eta arratsaldekoak 19:30ean.



Euskaltube, bideoak sareratu eta ikusteko euskarazko web gunea

EUSKALTUBE.COM proiektuak Youtube gunea du oinarri. Haritz Rodriguez web gunearen sortzailearen hitzetan, "gertuko eduki lokalean datza Euskaltuberen erakargarrtasuna". Dioenez, "aurrerantzean web gune berrian ikusi ahal izango diren bideoak erabiltzailearen gertuko ingurunearekin lotutakoak izango dira. Gainera, egun antzerako plataformatan aurki daitezkeen bideo kopuru handiak maiz ahanzturara bideratzen ditu Euskaltuben presentzia indartsuagoa izango duten edukiak". Euskaltuberen sistema euskara hutsean dago, baina Euskal Herriarekin harremana duen edozein bideo sareratu daiteke, euskarazkoa ez izan arren.

Erramun Landa margolariak *Berrian*: «Itogarria iruditzen zait hemengo kultur egoera. Konbentzionalismoz beteta gaude, baina ez da hori okerrena. Okerrena konbentzionalismoarekin asetzen garela ikustea da. Ez dugu besterik ezagutzen. Horrekin oso gordina izan nahi dut (...) Kulturaren instituzio horren ugaltzeak, niri, kontrastean, ez dit kulturaren sakontzerik ekartzen. Artearen gaineko nire plan teamendua suizida da. Arteak eta kulturak transgresioaren bidetik jo behar dutela iruditzen zait. Gainerakoa eroso gelditzea da. Eta euskal herritarrak eroso gaude. Oso eroso. Gaur egun kultura marketing operazio bat bezala saltzen da, turismoaren eta politikaren zerbitzura».

Xabier Elorriaga aktoreak *Diario Vascon*: «Euskal zinemaren hasierak izugarriak izan ziren, ilusioz beterikoak (...) Garai hartan (80ko hamarkadan) erakundeen laguntza itzela izan zen. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailean Labaien zegoen eta euskal zinema hedatzeko gogo handia zegoen, filmen kostuaren %25eko diru-laguntzak ezarri ziren. Madrilen zeuden euskaldun asko bueltatu ziren hemen lan egiteko. Euskal zinemaren urrezko garaia izan zelakoan nago, euskal zinema berriaz hitz egiten hasi zen... Orain badirudi ikus-entzunezko industria garatzeko borondatea badagoela berriro, baina ikusiko beharko dugu».

Abarrak

JON TORNER

Munduko kopa furgoneta baten truke


Euskalorros en el Mundial de Fútbol. ¡Liendo pollos!

Abarrots / TMEO (Ezten Kultur Taldea)

68 orrialde (koloretan). 28x20 cm. *Euskalorros en el Mundial de Fútbol* komiki luzeaz gain, laburragoak diren beste istorio batzuk ere biltzen ditu. 6 euro.

1987ko uztailaren 7a. Zenbait fanzinetan kolaboratzen zuten marrazkilariek *TMEO* komikiaren lehenengo zenbakia banatu zuten Iruñean. Kritika soziala eta umore garritza uztartzen zuten komikigileek euren istorioetan, eta hala jarraitzen dute 20 urte beranduago. Kolaboratzaileen zerrenda aldatu egin da, baina funtsean, *TMEO* aldizkariak 1987ko San Fermin egunean kaleratutako komiki horren izaera gaiztoari zintzo eusten dio. "Kaleratu". Berba horrek ederki islatzen du *TMEO*ren jarduna. Kalea du inspirazio iturri, eta kalea helburu. Bi hilean behin 5.000 ale banatzen dituzte (gehienak Euskal Herrian), batez ere taberna eta gaztetxeetan. Bosgarren urtetik aurrera Gasteizen inprimatzen hasi ziren eta hortxe jarraitzen du oraindik, Herreria kaleko egoitzan. Gaur egun Ezten Kultur Taldeak argitaratzen du.

Urte hauetan guztietan, 100. zenbakira bidean doan komikiaz gain, 30 bilduma publikatu ditu *TMEO*ek. Abarrots marrazkilaria *Euskalorros en el Mundial de Fútbol. ¡Liendo pollos!* 28.ena da. Iaz argitaratu zuen, Alemanian jokaturako Munduko Futbol Txapelketa hasi baino lehen. Argumentuak badu antzekotasunik Francisco Ibañez marrazkilaria sortutako Mortadelo eta Filemon agente sekretuen abenturekin. Hura ere sarri baliatu da kirol ekitaldi erraldoiez agente trakets biak egoera



absurduetan jartzeko. Euskalorroen banda osatzen duten ijitoek ordea, misio arras desberdina dute. Euren egitekoa ez da txapelketaren ordena bermatzea, hura sabotatzea baizik. "Frantzia hegoaldean" ezkututzen den komando bateko kideei zin egin diete euren aldarrikapenak mundu osoan ezagutuko dituztela, eta nahi izanez gero, urrezko kopa Euskal Herrira ekarriko dutela. Hori lortzeko eta, bide batez, buruan dituzten zenbait proiektu aurrera ateratzeko, Euskalorroak gai dira arbitroak mehatxatzeko, polizia erasotzeko, Mexikoko eta Txinako selekzioetan infiltratzeko... autoreak dioten moduan, beti dabilta "polloak liachen".

Abarrotsen marrazkiak trazu azkarrekoak dira, guztiz definitu gabeak. Dena den, istorioari bizitasun handia ematen diote, Alvarez Rabo komikigile beteteranoaren marrazkiekin gertatzen den bezala. Euskalorroek darabilten hizkerak, gainera, bizitasun hori areagotu egiten du, istorioari umore ukitu ederra emateaz gain. Futbola dibertigarria eta politikoki lotsagabea izan daitekeela argi utzi digu Abarrotsek.



Dive Tarpoon Urpekaritza



Kirol portua, A7 lokala • 48992 Getxo • Tel / Faxa: 94 4912577

e-posta: divetarpoon@euskalnet.net • web orria: www.divetarpoon.com

